

Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko maiatzaren 12a / VI. urtea / 178. zenbakia

Soka gaineretik gogoeta

Eskaladan aritzeko bi egun antolatu ditu Nafarroako Goi Mendi Eskolak (NGME) asteburu honetarako, Iruñean eta Etxaurin, soka batetik zintzilik egotea zer dagoeneko aritua denaren dako. Larunbatean Gotorlekua izango da topaleku, boulderren aritzeko lehiaketa antolatu delako, eta igandean Etxauriko harkaitzak. Egundat bat eskalatzen igarotzeaz gain, eztabaida edo gogoeta eguna antolatu dute NGMEkoek, eskalatzaile guztiei dagokien gai zenbait jorratzeko. Izan ere, inoiz baino



Iruñeko Gotorlekua izan da eskalatzaile askoren estreinako pareta. NGME

jende gehiago ari da eskaladan, eta batzuen ustez bada garaia elkarren zagutza iraunkorra egiteko. Halaber, bideak ekipatzeko filosofia, Etxauriko aterbea edo zenbait garaitan Etxaurin herri-gazteak dituzten kabiak direla-eta eskalatzean hartu beharreko neurriak finkatu nahi dituzte eskolakoei. Gogoeta egitearen aldekoak dira, fiñean. Horretarako, zer hobetarik eskalada eguna eta afari goxoa baino?

Ez ditut ahanzi Chomindel Regatoren irri-karikailak; ito beharrean, «sabidurencia, mucha sabidurencia!» egiten zion oiñu planeta osoari irratia frankistatik. «Ezin ergelagoa naiz (zarete)», esan nahi zigun, ironia, sarkasmoa edota parodia inoiz egiten jakin ez dutenen estilo traketsaz.

Hala zen, hozpelean bizi ginen, sabidurencian. Jakintza urrunegi zegoen eta garestia zen. Azkarrenak eta gogotsuenak 'La Uni-ra' joaten ziren, aparte samar, klima siberiarreko Gaztelara edo Pariseko urrinak zeuzkan Bartzelonara. Hemengo kaleetan ere bazen unibertsitate franko, elastiko urdin haien modak iraun zuena iraun bazuen ere: 'University of...', letra zuriz. Hutsunea betetzeko edozein izen erabil zitekeen, Oñate ikustea ere

tokatu zitzaidan inoiz. Lehenengo ikasgaietan aukera zabala zen: 'Prison of Alcatraz' irakurri nuen pioi gazten baten bizkarraren. Ikasgai errazetak eraginkorrenak.

Txillidaren logotipoarekin batera etorri zen *new-age*-a. Señorita karrera probintziatik atera gabe egin nuela eta herrak eragindako atrebentziak mintzo naitzela pentsa lezake batek, baina beldurrik gabe esanen dut gaur egun jakintza sobera eta gaizki banaturik dagoela, eta unibertsitatean leitzen diren tesiak dira horren adierazgarri. Adin guztietako doktozei eta larruzko

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Sabidurencia

karteraz bete dira kristalezko pasiluak.

Asko dakite, baina nik uste tesiak ez dituztela behar den lekuan leitzen. Urrikiorkak izanen balira guri irakurriko lizkigukete, lapitza ondoan hartu gabe, oharrik eta konklusiorik idatzi gabe hurrengo liburura pasatzen garenoi, sistema zorrotzik gabe lan egiten dugunoi...

Berekoiak direla? Ez gu baino gehiago. Danie Pennacek irakurlearen eskubideak idatzi zituen, eta, modu berean, itxituran urteak eman dituenak bereak eskatzen ditu. Doktozeak ere gehiago irabazi nahi du, diru horren

truke astean dozenerdi bat klase emateko prest dago, gainontzeak ikertzeko, ikerketa, aurretik gai beraren inguruan ihardun duenari muturreko dialektikoa emateko profita dezake, muturrekoaz ez da beste inor ohartuko, bera eta bere lagunak bat izan ezik, tesiak eskuarki lagunak plazererako idatziak izanen baitira. Gu ere errudun gara. Tesia putzu iluneko dirdira izatera kondenatzen dugu.

Doktozeak arrazoi ezin hobeak dauzkate isilik geratzeko. Ordea, behar larrian gaudenok biziki estimatuko genuke edozein keinu didaktiko. Gailurrera iritsi eta gero beherantz begiratzen dakienaren apaltasunak jakinduria gehitzen du. Ezjakintasunaren ordokian bizi garenek ere gogotik emanen genieke *cum laudea*.

GURE AUKERAK

MUSIKA



'Balerdi Balerdi' musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, maiatzak 13, Burlatako Euskalerría Peñan. Arratsaldeko 7.30etan hasita.

'El inquilino comunista' musika taldearen kontzertua izanen da bihar larunbata, hilak 13, Garesko dantzalekuan. Gaueko 11.00etan hasita.

'Suck you crew' musika taldearen emanaldia izanen da heldu den asteazkenean, maiatzak 17, Iruñeko Zulo tabernan. Gaueko 9.00etan hasita.

IKASTAROAK



Animazio Teknikak eta Jokuak izeneko ikastaroa antolatu du hilabete honetarako Urtxintxa Aisialdirako Formazio Eskolak. Gazte, begirale, hezitzaile eta animadoreei zuzendutako ikastaroa maiatzaren 20an eta 27an izanen da.

Autoestima eta Abiltasun Sozialak ikastaroak antolatu ditu datozen asteetarako Andrea Emakumeentzako Zerbitzuak. Asteartean eskainiko da, arratsaldeko ordutegian. Informazio gehiago nahi duenak 22 77 14 telefonora deitu edo Andreako egoitzara (Navarrería 15) joan.

ANTZERKIA



Diskorides antzerki taldeak 'A puerta cerrada' izeneko lana taularatuko du gaur ostirala, hilak 12, Nafarroako Antzerki Eskolan. Gobernuak antolatutako Gazte Antzerki Topaketan barruan, bihar eta leku berean, Pasadas Las 4 taldeak 'Retazos de soledad' lana plazaratuko du.

Apanize ikuskizuna ikusteko aukera izanen da Iruñean heldu den asteko ostegunean, hilak 18, Nafarroako Antzerki Eskolan. 'Bedatseko giroa' udalak antolatu duen zikloaren barruan, bertan Koldo Amestoy eta Pascal Gagne ipuin kontalariak parte hartuko dute, musikaz lagundurik.

ZINEMA



Zinema Mexikarrari buruzko zikloaren barruan 'Amor libre' izenburuko pelikula botako dute heldu den asteartean, maiatzak 16, Iruñeko Olite zinemak.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Marka guztiak hautsita

Gaur gauerdian hasi den kanpaina honek marka guztiak gaitzitzeko traza du. Egia esanda, luzera dela eta, marka guztiak hautsiak ditu: bi urte edo daramatzagu kan-

renarekin, lehendakaria nafar guztien azken babesleku bihurtu dela boterean, Espainiako eskuinari arima eta bihotza saldu nahi diotenen aurrean. Aldekoak ez dira lehen bezainbeste, baina badirudi bes-

palo handiagoa eta txukunagoa jarri diete, eta zuhaitz dotore askoak agindu, eskatu gabe. Jakina, alkatetza lortuz gero. Talde guztiek lortutakoaren berri ematen dute dotore argitaratutako karteletan,



painan, gorriak eskandalu guztien ondoren legitimitatea eskuratu nahian, txuriak eskandalu guztien aurretik legitimitatea beraiek dutela erakutsi gogoz.

Bereziki ikusgarria izango da atzo gauerdian hasitako, amorratuta dagoelako txakurra, amorratuta ehiztaria eta bitsa ahotik dariola basurdea. Dagoeneko nire lankide batek parekatu du gaur egungo egoera Amaiurko gaztelukoa-

te taldekoak ere gehitu egingo zaizkiola Albretako Enrique berriari. Inkestek beste tokietan egin dituzten hutsak hain nabarmen egiten ez badituzte behintzat, Espainiako inbasorearen aldekoek zail izan lezakete gobernu berria.

Politikologoak horretan murgilduta daudela, kalearen parean ziztuan burutzen ari diren lanak dira jendearen estonagarri. Ondoko etxebizitzakoei eskatu zuten baino es-

eta lau urtetanegin ez dutena garbi eta argi azaltzen dute bertan indar telurikoek gauzatzeko betarik ez dietela eman, alegia.

Egia esanda, interes bakarra da ehiztariak basurdea harapatuko duen, edo honek koska egingo ote dion berran. Amaiurko gaztelua Nafarroaren askatasunaren hasiera izango den, edo espainolstek berriro konkistatuko duten. Gainontzeko guztiak bost axola.

ASTEKO PERTSONAIAK



Koteto Ezkurra
Pilotaria



Joan Manuel Serrat
Abeslaria

Hogeita bi urte besterik ez ditu, eta dagoeneko pilotari askok karrera guztian lortzen dituzten adina, titulo eskuratu ditu Doneztebeko Koteto Ezkurra erremontistak. Gazte hasi zen mundo honetan, hamasei urte besterik ez zituen, eta ordutik hiru finaletan parte hartu eta hirutan garaile atera da. Iaz bi finaletan izan zen, 'Ases' txapelketakoan eta binakako nagusian, eta bietan irabazi zuen, joku ikusgarria erakutsiz. Eta joan den igandean jokatu zuen hirugarren finala, 25. Urteurrenko Txapelketa, eta orduan ere garaile atera. Kontutan izan behar da, gainera, bere aurkaria erremonte munduan hoberenetakoa den Elizalde II. zela. Ez zen, ordea, urduri jarri eta serio aritu zen partidua osoan, lauen artean onena.

Iruñean izan da aste honetan Joan Manuel Serrat kantari kataluniarra, Gaiarren Antzokian musika emanaldia eskainiz, Nafarroako Gobernuak antolatutako Kantautoreen Lehiaketari amaiera emateko. Ez zen, ez, Gaiarren Antzokia bete, sarrerak garestiak baitziren, baina bertan bildutakoak pozik atera ziren kontzertua amaitu ostean. Aspaldiko abesti famatuekin hasi zuen emanaldia, jendea girotzeko edo, eta gero bere azken diskoan, 'Nadie es perfecto', azaltzen diren kantak abestu zituen. Jendeak gustora entzun zituen, baina gehienei laburra egin zitzaie kontzertua, ordubete eta laurden iraun baitzuen. Kantekin batera hitzak ere sartu zituen kantautore ospetsuak, jendearen erantzuna sortu nahian.

AHAZTU GABE!

KULTUR
EKITALDIAK

'Udaberriko Bira 95' Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen programa hasiko da gaur Orotz-Betelun eta ekainaren 25ean bukatuko da Mañerun. Antzerkia, musika, zinema eta folklore programa da, 200 eta 775 biztanle bitartean dauzkaten udal eta kontzejuetan burutuko dena. Lau pelikula botako dituzte: 'Sra. Doubtfire', 'Yo, tú y mamá', 'Cuatro mujeres y un destino', eta 'Speed, maxima velocidad'. Antzerki obrei dagokionez, Pikor, Hika, Los Galindos, Teatro Imaginario, Teatre Mobil, Setrill eta Teatrupo taldeek aurkeztuko dute lan bana. Ganbara musikari buruz, berriz, hiru talde aukeratu dituzte programan sartzeko: Sine Nomine Musika Tailerra, Cuarteto de cuerdas Abrene eta Nuria Rial sopranoa, eta Scordatura izeneko lana. Bukatzeko, Jazz, Koral, Dantza atalean beste lau lan izanen dira programaturik: 'Bob Destiny & Soul Express', Santo Tomas Abesbatza, Nora Abesbatza eta Tuterako udal dantzari taldea.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenetik 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenetik 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



HERRIZ BERRI



Doneztebe

Bigarren Trikitixa Txapelketa

IRUÑA

Nafarroako Trikitilarien Bigarren Txapelketa antolatu du ekain eta uztaileko Arbizuko Trikitixa Eskolak Donezteben, Arbizon eta Iruñean. Txapelketako lehen kanporaketa Maleirekako herrian izango da ekainaren 18an, Bordatxo dantzalekuan.

Iaz bezala, Sakanako trikitilariak hartu dute Nafarroako txapelketa antolatzeko ardura. Orduko arrakasta ikusita, animoz beteta ariko dira aurten ere, esku-soinuaren zaleen erantzuna ezin hobe izan baitzen, lehendabiziko aldiz antolatutakoa izanik ere. Bigarren txapelketa honetarako izena emateko epea zabalik dago dagoeneko, eta maiatzaren 24an, hau da, bi aste barruko asteazkenean amaituko da.

Finalaurreak izena ematen dutenen kopuruaren arabera izango dira, baina tokiak zehaztuta daude. Donezteben lehendabizikoa, esan bezala, eta Arbizon bigarrena, ekainaren 24an, bertako jaietan, alegia.

Finala, iaz bezala, Iruñean izango da, uztailearen 2an, peñen egunean, eta bertan puntuazio onenak ateratu dituzten zortzi bikoteak lehiatuko dira nor baino nor.



Arbizuko Trikitixa Eskolak Trikitilarien txapelketa antolatu du.

Parte hartzeko arauak ere kaleratu ditu Arbizuko Trikitixa Eskolak. Trikitilariak Nafarroan behar du bizi, eta izena ematekoan nortasun agiria aurkeztu beharko da. Ohizko piezak jo beharko dira, eta bi kanporaketetan jende kopuruaren arabera izanen dira hiru edo lau pieza.

Halaber, baserritar jantziekin agertu beharko dute bikote partehartzaileek, eta finalean ohizko lau piezak jo beharko dira. Hauek arin-arina ezin izango da aurrekanporaketan erabilitako bera izan.

Epaimahaikoen erabakia aldaezina izango da eta puntuazioak jendaurrean jarriko dira, horretarako prestatuko den arbel batean. Puntuazioa emateko kontuan hartuko da: trebetasuna, zailtasuna, neurria eta erritmoa dantzarako, espresioa, pandero eta soinuaren arteko erlazioa eta ahotsa eta kantua. Mikroak ere aldez aurretik prestatuko dira eta ez dira ondoren mugituko. Horretarako bi bikotek hartuko dute parte prestatketan.

Parte hartzeko izena emateko 46 03 35 telefonora hots egitea besterik ez dago. Trikitixa eskolatan emango dute horren berri. Txapelketarako izena emateko azken epea, beti ere, maiatzaren 24a izango da.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Euria

Bere artaldearekin ardibideetan barna zebilen artzaina topatu nuen behin Bardeetan. Topo egin genuelarik, kontuz ibiltzeko esan zidan, aurki ekaizta izanen ei zelako. Zerua urdin-urdin ageri zenez, berehala galdetu nion ea ardien portaera, lurraren kolorea edota zer demontre ikusiz antzematen zuen ekaizta izanen zela. «Radio Nacional entzunda» erantzun zidan berak, eskuan zeraman irratia erakusten zidan bitartean.

Pasadizoak ni bezalako kallekume peto-peto batek artzainez zuen irudi estereotipatua dozenaka apur txikitzen desegin zuen. Harrez geroztik ez nuen uste inork Meteosaten laguntzarik gabe eguraldia iragar zezakeenik. Ohi denez, baina, oker nenbilen.

Alfredo Liras intsumituak San Ferminetan peñekin batera zezenetara joateko jaioa dela ematen du. Sanduzelai



Iruñea

Hiria atseginago egiteko Batzarreraren proiektua ikusgai

IRUÑA

Alde Zaharreko oinezkoendako proposamena, Argako Ibai parkea, Ezkabako parke osoa, hirian zeharreko bizikleta eta oinezkoendako ibilbide leunak... hauek dira Batzarre taldeak 'Bihar' izeneko proiektu berrian eratu dituen ideia batzuk. Horren bidez, inguru osasungarri eta bizitzeko atsegina litzatekeen Iruñerriaren ideia irudikatu du taldeak. Hau guztia hobeki ikusteko eta zehaztasun guztiak jaso ahal izateko, igande goizean Iruñeko Gazteluko plazan taldeak paratuko duen erakusketa bisita daiteke.

Alde Zaharrerako proposamena da kaleak berreskuratzea, eta irudia hobetzea. Horretarako oinezkoendako sarea osatzeta, bizilagunen udal aparkalekuak egitea eta kaleak hornitu eta dekoratzea dira proposamenak. Halaber, koherentzia eskatzen du taldeak egin beharreko neurri guztien artean.

Argako ibai parkearen ideia burutzeko Iruñea alderik alde zeharkatzen duen inguru honen garrantzia azpimarratu du Batzarre taldeak. Arga ibaiak aukera bikainak eskaintzen ditu aisiaidrarako eta nekazarien ekoizpenerako, eta hori babestu eta bere erabilera bultzatzeko ur bazterreko zaldia indartu, lurra moldatu eta landareak berritzea proposatzen da 'Bihar' proiektuan.

Ezkaba mendia da hurrengo gunea berritzeko. Gero eta hondatuagoa bada ere, oraindik eskaintzen ditu aprobetxatzeko aukera franko, eta horietako batzuk izango lirateke ibilbideak prestatzea, rokodromoak eta ala delta egiteko tokiak paratzea, begiratokiak eta atsedenerako guneak prestatzea... Halaber, hiri osoan zehar bizikletaz eta oinez bakarrik ibiltzeko ibilbideak proposatu ditu taldeak. Horri buruzko argitasun gehiago, igandean Gazteluko plazan.

Antsoain

Bertsolariekin hitzaldia eta afaria Euskal Jaiei barruan

ANTSOAIN

'Bertsolaritza: historia eta garapena' gaiaren inguruan Estitxu Fernandez bertsolariak eta Lontxo Aburuza Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteko kideak emango duten hitzaldia izango da Antsoaingo Udalak antolatu dituen Euskal Jaiei egitarauko ekitaldi nagusia. Arratsaldeko 19.30etan hasiko da hitzaldia Ezkaba Ikastetxeko Liburutegian, eta ondoren bertso-afaria izanen da Parrilla jattetxean. Postretan Estitxu Fernandezek eta Jose Mari Irazuk bertso emanaldia eskainiko dute. Urtero antolatzen diren kultur ekitaldi hauek asteazkenean hasi ziren ikastetxeko liburutegian, Bizkaiko dantzen tradizioei eta jantziei buruz Iñaki Irigoienek eman zuen hitzaldia eta diapositibak emanaldiarekin.

Bihar larunbata, hilak 13, goizeko hamaiketan hasita, txokolatada izango da Lapurbide parkean, eta ordu erdi geroa-

go, toki berean, 'Ortizaurioak' izeneko antzezlanak aurkeztuko du Hortzmuga zango taldeak. Egurdiko 12.30etan, herri kirolak izango dira toki berean: artaburuen bilketa, trontzalariak, txingak, zaku lasterketa, sokatira... Gazte Berriak taldekoek, Xalbador Euskaltegiak, Antsoaingo Gimnasia taldeak, Ezkaba Ikastetxeko maisu-maistrek eta goi-zikloko neska-mutilek hartuko dute parte.

Igandean, maiatzak 14, goizeko bederatzieta izango diren argi-soinuak zabalduko da egitaraua. Lapurbide parkean, goizean zehar, artisau erakusketa izango da, eta Ezkaba Ikastetxeko neska-mutilek ere beren marrazki eta lanen erakusketa egingo dute. Egurdian kalejira izango da, Eguzki Eder eta Faltesko Makaia dantza taldeekin, eta zarpantzar, zango, gaitero eta txistularien. Arratsaldeko 14.30etan Ezkaba Ikastetxean herri bazkaria izango da, eta ondoren dantzaldia.

auzoko seme horrek inolako bitarteko teknikoren laguntzarik gabe zer-nolako eguraldia izanen genuen bete-betean asmatu zuen joan den egunean. Sesta ostean patioa atera ginenean, arratsalde horretan euria izanen genuela esan zidan. Ordubete beranduago euria ari zuen, euri alkoholikoa, patxaranez eta ardoz beteriko plastikozko botilatxoak, hain zuzen ere, Sanduzelai auzoko jaiak behar bezala ospatzerik izan genezan jaurtitako euria. Patioan alde batetik bestera korrika, funtzionarioak gure atzetik zebiltzala lehorte setatia gainetik kentzea lortu genuen.

Lirasek bete-betean asmatu zuen, baina ez dut uste Radio Nacionalean laguntzaz egin zuenik; izan ere, orain arte ez dut inoiz entzun «Adi egon Araba, Nafarroa eta Errioxako kartzelariak: gaur bada botilatxo euri eta kazkabar arriskua». Batek daki, agian aurki horrelakoak entzuten hasiko gara...



Eskaladaren inguruko bi egun antolatu ditu Nafarroako Goi Mendi Eskolak (NGME) asteburu honetarako Iruñean eta Etxarrin, aditu zein sekulan parte hartu ez dutenendako. Jarduera hau jendeari hurbiltzeaz gain, Nafarroako eskaladak aurrean dituen gai zenbaiti buruz eztabaida sortu nahi du eskolak, eta eskalatzaileen biltzarra antolatu da horretarako igandean Etxauriko Denak-Bat Elkartearen.

Goieneko eztabaidak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Eskalatzaile trebatuentzat zein soka bat pelikuletan soilik ikusi dutenendako egunak izango dira NGMEk Etxaurin eta Iruñeko Gotorlekuan prestatu dituenak, lehia kutsua duen oro baztertuta. Bihar, larunbata, 18 urtetik behetako lurretik gertu eta sokarik gabe eskaladan lehen ekinaldia egiteko aukera izango dute hiriko harresi zaharretan zehar, modu atsegin eta ikusgarrian, eta igandean, hilak 14, eskalatzaileen biltzarra egingo da Etxaurin. Eguna jai giroan igaro dadin, gehien gustatzen zaiena egingo dute: eskalatzea. Ondoren, afaria izango da Denak-Bat Elkartearen, hainbat gauzari buruz solastatzeko. Hau izango da, hain zuzen ere, bi egun hauetako sakoneko arrazoiak: Nafarroako eskaladak aurrean dituen hainbat eztabaidari aurre egitea.

Harkaitza gainditu eta bide berriak urratzeko gogoa bertsua baldin bada ere, ezin uka azken urteotan aldatu egin dela jardueran hau, aldatu egin denez. Aspal-diko lagun koadrila urriak andana dira egun, Etxaurin ezezik Nafarroako beste alderditan ere eskalatzen da, eta aurrerapen teknikoek elkarren arteko eza-gutza bultzatzen dute, ahalegi-nak nolabait bateratuta izan daitezen. Gaiak denen ahotan dau-de, Esate baterako, Etxauriko aterbea zikin dago oso, eta horri irtenbideren bat eman nahi zaio eskolatik. Halaber, arauak fin-katu nahi dira Etxauriko harkaitzetan habiak paratzen dituzten hegaztiei kalte ez egiteko, eta, batez ere, ekipamenduei buruz —alegia, bide bat eskalatu ahal izateko erabiltzen diren teknikari buruz— hitz egin nahi da. Filosofia bat baino gehiago baita horren atzetik. Laburbilduz, esan daiteke lehen behetik hasita zabaltzen zirela bideak, eta orain goitik egiten dela. Zabaldu baino gehiago, ekipatu egiten da egun. Bideak berriro ekipatu edo ez ere ezbaiko da. «Betiko leloa» diote eskalatzaile askok, eskalatzeako moduei buruzko auzia eskalada bezain zaharra baita. «Eskola desberdinak dira», dio Raul Melero Painen bide berria zabaldu berri duenak, «baina nire us-tuz garrantzitsuen da orain ari direnek erabaki dezatela. Ezin da esan lehen egiten zena ongi zegoela eta oraingoa gaizki. Oskalatzen duenak erabakitzen du,

besteak isilik». «Ekipamendua ongi edo gaizki egin daiteke», argudiatu du Miguel Berazaluze NGMEkoak, «eta guk, hainbat urteren buruan, ongi egiten ari gara. Jakina, ezin gara Sakanara joan eta esan 'zuek gaizki egiten ari zarete', baina azal dakioke jendeari gure teknika eta gure laguntza eskaini ahal diegu. Horretarako modurik onena ez da bilera serioa, afaria eta lagunaren arteko topaketa baizik».


Denak ados daude eskaladak garai oparoak dituela gurean. Etxaurin urtero zabaltzen dira bide berriak, maila handikoak denak, eta Arterderretan, Lizarran, Zangozan eta Sakanan ugari dira harkaitzetara soka batekin hurbiltzen direnak. Gero eta gehiago, Iruñerrikoak Gotorlekuan hasten dira lehendabizi eta gero Etxaurira abiatzen dira. «Bide ona da», azaldu du Melero. «Hasteko maila hartu pareta errazetan, eta gero ondo ekipatuta dagoen alderdi ezagun batera». Horretaz gain, ez da dudarik lehen baino jende gehiago dela. Batzuek ez dute jehen ezinbesteko zirudien mendiarekiko nolabaiteko harremana, eta tar-teka familia osoak joaten dira ikastaroetara. Gehienak, nolana-hi ere, Etxaurira, aparta eta ego-kia baita oso. «Hobe da ahalegi-nak bertan zentratzea», dio Berazaluzek, «ezen ez handik eta hemendik bide txikiak zabaltzen ibiltzea». Eskola sentimendua izan behar du toki batek. Ea beste tokietan ere horrelako tokiak sortzen dituzten».

Lehiaketa falta da Nafarroako eskolaren beste ezaugarri bat. Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, ez da horrelakorik egin —duela urte askotxo Etxaurin antolatu zena kenduta—, roko-dromo paratzeko asmo sendorik ez delako inoiz izan. Eskolan us-te dute publikoa behar lukeela izan, pribatu baten kostuak ez lukeelako jendea erakarriko, eta badirudi administrazioarekin izaniko azken harremanak bide onetik doazela. Luze gabe Nafarroak bere rokodromoa izan dezake, bai neguko entrenamenduetarako bai lehiaketarako. Urteetako gabezia hau dela eta, Berazaluzek dioenez, eskalatzaile nafarregan nabariagoa da mendizaletasuna lehiazaletasuna baino. Horregatik, akaso, Carlos Garcia soilik ari da punta-punt-goela eta oraingoa gaizki. Oskalatzen duenak erabakitzen du,



hartzen, eta horregatik, akaso, ez dute oihartzun handirik izaten urtero egiten diren espedizio garrantzitzuek: Raul Melero eta bere taldeak Paineiko (Patagonia) Erdiko Dorrean zabalduko bideak, edo gutxi barru Trangora (Pakistan) Iñaki Otxoa de Olza eta beste bostek egingo dutenak, edo ekanean Miguel Berazaluz lagunekin Baffingera (Kanada) antolatzen ari denak... «Guk ere ez dugu jakin izan gure lorpenak saltzen», dio Berazaluzek, «baina niri gustatzen zait mendira joatea loturarik gabe. Babesleak edo badituzu, bada presio bat, egunkariei saldu beharra, eta egia esan, horrek ez dit satisfazio-rik ematen». «Niri eskalatzea gustatzen zait», dio Melero, «berdin zait non». Garbi dute eta.



Etxauri izan da duela gutxi arte eskalatzeako gune ia bakarra Nafarroan. Hara joan bitartean, Iruñeko Gotorlekuan saiatuko dira iruindar asko. NGME



Administraioa-
rekin izaniko harre-
manak bide onetik
doazela eta, luze ga-
be Nafarroak roko-
dromoa izan dezake,
neguko entrena-
menduetarako eta
lehiaketetarako.



Etxauri: 50 urte

A.B. / IRUÑEA

■ Arterderreta, Bi Haizpeak, Sakana edo Zangoza inguruko gero eta gehiago erabiltzen ari badira ere, Etxauri izan da eta bada oraindik Nafarroako eskalatzaileen gogoko harkaitza, amesetako aldapa, lagunarteko topaleku, igandeetako txolarte, ezin konta daitezkeen porrot eta garaipenen lekuko. Hirurehun-dik gora ibilbidek zartatuta ere, ez du galduta bere erakargarritasuna, aukerak ugariak baitira oraindik. Euskal Herriko eskalada gunerik garrantzitsuen da.

Carlos Velazquez eta Miguel Berazaluzek idatzirik 'Etxauriko Eskalada Gida-n' azaltzen denez, 1946ko abuztua da Etxauriko historia ofizialaren lehen data, Kataluniatik etorritako eskalatzaile talde batek Husoko lehen igoera egin baitzuen orduan. Ez ziren, baina, harkaitz garai hartan beldurgarriak igotzera ausartu ziren lehendabizikoak. 1902ko maiatzean, Etxauriko bi gaztek eginiko apustu baten ondoren Harginaren tontorra zapaldu zuen Domingo Pello Ziritzakoak. Eskailera eta apalak erabili ziren horretarako. Goiko zuhaitzen artean burdinazko gurutze bat aurkitu zuten, 1728ko data zuena. Tradizioak dioenez, hargin batzuek igoak ziren askoz

lehenago, baina ez da horri buruzko aipamenik artxiboetan.

Katalanek egindako bisitaren ondotik osatu zen nafar talde bat —Iriarte, Aldaz, Zamarbide—, lehen bideak zabaldu zituen, baina gutxinaka desegin zen, jarraitzeko bultzada eta laguntza handirik ez zegoela eta. 1956an talde honen txanda hartuko zuen boskoteak —Asiain, Albero, Tápia, Carballeda eta Bidaurreta— gogor ekin zion harkaitzak aztertzeari, eta lehen bide klasi-koak orduan ireki ziren. Horiek antolatutako ikastaroekin belau-naldi garrantzitsu bat sortu zen, eta ordukoa (1971) da bertako aterbea eta Jose Ignacio arraila (1970), seigarren gradua jaso zuen lehena. Hortik aurrera, mendi handiagotara joateko aukerak gero eta oparoagoak izanik, Etxaurik izan zuen geldialdi nabarmena, hariak eta 80ko hamarkadako teknika berriek berriro interesa piztu zuten arte. Santi Galarren izena ezinbesteko da orduko filosofia ulertzeko: magnesiorik gabe, spits gutxi, aseguru urrunak... 1985eko urtarilean lehen 7a zabaldu zuen.

Ondoren etorriko ziren Carlos Garcia eta bere lehen 8a —ondoren 7a— (1987), Koldo Bayona, Eskolak berak berriro ekipatuko zituen ibilbide gehienak... Eta Etxaurik hor segitzen du.

Tximistei izandako izua eta euskal erromantze bat

● Euskal Herrian, beste toki askotan bezala, ekaitzei beldur eta begirune haundia izan zaie. Industrializazioa ailegatu baino lehenago gure herrietan Tximistarriak erabiltzen ziren tximistetatik babesteko. Harri hauek silexez egindako Historiaren tresna ezberdinak dira, Neolitikotik aurrera agertzen diren pulimentatuak alegia. Hauek, aitzurrak eta aizkorak bezala erabiltzen ziren, goikaldea zorrotza eta gaine-rakoa leuna izanez, baina historian zehar etxearen atarian batez ere ipintzen ziren tximista eror ez zedin.

Harri bitxi hauek azaltzeko, aintzinetik jainkoak botatakoak zirela pentsatzen zen. Ofizialari eta Oskarri deitzen diete beste leku batzuetan.

dugu, haren mailua eta zerutik datorkigun indar bortitz horren lekukoa izanik. Mitxelenak dionez Thor hori ez dugu arrotza euskaldunok, hortzadar, hortzegune hitzetan ikus dezakegunez. XIX. menderarte gizartearen gehiengo nekazaria zen, horregatik zeruko fenomeno guztiei arreta handia jartzen zitzaion, uzta haien menpetasunean bait zegoen. Dudarik gabe, harridura handiena sortzen zuena tximista zen.

Badira beste metodo batzuk tximista eragozteko: Erramu Igandean erramu bat etxe atarian, kortan edo etxearen lehoian jarri; maiatzaren hiruan bedeinkatutako urritz bat ipini; Donibane eguneko egunsentian moztutako haritzala ala har-

harriak deituriko fosilak jartzen zituzten ekaitzak eragozteko.

On Joxe Miguel Barandiaranek bi maila bereizten ditu Etxearen sinismenen edo kondairen barnean: *Berezkoak*, ukitu daitekenak; eta *Aidekoak*, naturaz gairikoa direnak, ukitu ezin direnak. *Aidekoen* barnean sartzen ditu tximisten kondairak, hau da, gizonak menperatu ezin duena. Eta horrekin bat dator mintzagai dugun erromantzea. Gure literaturan XV. mendeko *Milialasturkoaren eresiak* erromantzean bertso hauek aurkitzeko:

*lausu da ceruean arria,
Aurquitu dau Lastur-en torre
barria./ Edequi dio almeneari
erdia./ Lastur-era bear doçu*



Denborarekin, tresna hauek burdin eta altzairuzkoen truke aldatu ziren, hauek mutur zorrotza goikaldera begiratu, berez, kaltegarriagoak zirelako.

Munduko mitologia osoan tximistek garrantzi handia izan dute, eta Jainko handiek beti eraman izan dute hau beren indarkeriaren erakusgarri gisa: Indian Rig-Vedak, egurtsaren jainkoa den Indrari, tximistaren poterea ematen dio; Grezian Zeus dugu jainkorik garrantzitsuenak, zerua jabea eta beraz, bere fenomeno guztien eragilea, ekaitzak batipat. Erroman jainko hau berenganatuko dute Jupiter deituz. Ipar-Europen Thor

turiko San Juan Belarra jarri; otsailaren bian (Kandelaria eguna) bedeinkaturiko kandela ekaitz haundia zegoenean piztu; sailduetara oles egin, Santa Barbara eta San Bartolome batipat. Larunbat sainduan harturiko ur bedeinkatuarekin ekaitzak konjuru erramuen bidez; Ihabarren *Konjuratoki* izeneko dermioa dugu, konjuro horiek egiten zireneko lekuak, beraz. Elizetako kanpaiak jo, honi, leku batzuetan *odei-kanpanie* eta beste batzuetan *harri-kanpanie* (tximistarriekin zerikusia duena) deitzen diote; Nafarroako Erriberan erabiltzen ziren kanpaiak *tenubloak* deitzen zieten. Azkenik Bakaikoan *Santiago-*

Milia (...) Ceruean lausi da abea./ Jo dau Lastur-co torre gorea./ Eroan ditu ango jauna eta andrea./ Bata leen, guero bestea./ Bidaldu dogu ceruetara cartea./ Arren diguela gure andrea.

Argi eta garbi agertzen da tximistaren jauzpena gaitzaren seinalea dela, kasu honetan zerutik erorritakoa, dorre batean erortzen dena eta almena bat erditik moztzen duena. Baina tximistak potere birrintza-leaz gain, gizakien kontra doa, erromantzearen protagonistak hilez, lehenengo bata eta gero bestea. Jaungoikoak gizon-emakumeen joan-etorriak zigortzeko ibiltzen duen elementu da beraz.

Paristik Imirizaldura

Galdera: Paristarra naiz, adituen arabera Frantzian etorkizun hoberik duen margolaria eta Imirizalduko neska bat ezagutu nuen museo inpresionistan. Haren ustez Imirizalduko zeruaren koloreak ikaragarriak dira, argiastian, ilunabarrean, eguerdian, atsaldean, ordu txikietan. Imirizalduko zeruaren koloreak margotzeko asmotan Paristik Iruñera etorri nintzen. Sanferminak ziren. Ezin hobeki pasatu nuen eguna. Jende jatorra hemengoa. Etxean bezala kalean. Alaitasuna galdu barik, pinturaz mintzatu ginen. Eta jakina Imirizalduko neskarekin maitemindu nintzen. Zer kolore ez ote ziren azaltzen haren begi nabarretan?

Entzierro eta gero joan ginen Operara, eta Verdiren Nabuco ederra aditu genuen. Atsenalditxo batean galdetu zidan ea prest nengoen haren etxean bizitzeko. Etxean hamabost zirela esan zidan, eta niri haurrak gustatzen zaizkidanez, baietz esan nion. Hara joan eta hamabost ziren, nire neska etxeko haur bakarra izanik: aita-amak, aitaxi-amaxiak, osabak, izebak, aita-amaxien ahizpa-arreba-anai-nebak. Horreur, mon dieu. C'est terrible. Tuer le diable plutôt qu'il ne me tue.

Zer egin nezake? Nik maite dut neska, baina nere errepresentateak dioenez, orain margotu dudak kuadro sailak, 'atso-agureak eta zeruak' alegia, izugarriko arrakasta izan du, Parisko azken Azokan. Batez ere, 'Osaba Indaleziok jota bat kantatu behar du soroko ospelean' kuadroak. Eta jakina, neska ohartu da denbora gehiago ematen dudala bere familiarekin harekin baino. Esaterako orain ari naiz pintatzen 'Insektizida botatzen ari da galsoron Martin, besteek bazkari-legea egiten dutelarik'. Nola lor nezake nire neskaren eta bere familiak sortarazten didan miresmenaren arteko oreka?

Erantzuna: Nere paristar arrakastatsua. Kostata ere



«Nafarroan lehenago da etxearen zoriona gizon-andreen zoriona baino. Eta etxerako ona dena, gizon-andrearentzako ona da».

baina esan behar dizut, Nafarroan lehenago dela etxearen zoriona gizon-andreen zoriona baino. Eta etxerako ona dena, gizon-andrearentzako ona da. Beraz, seguru aski, nahiz agerian besterik iruditu, oso kontent dago zurekin neska, oso kontent, etxealdea gordetzeaz gain, haunditzen baitoa zure pintzel-lanekin.

Zeren Homerok esan zuen bezala, «gizon-andreen belunaldiak, ostoa legez». Hori gorki ongi ikusten da Nafarroako etxealde handiko etxeetan. Pasatu pasatuko dira seme-alabak aita-amak izatera, eta beranduxeago aitaxi-amaxiak izatera, baina hor dirau etxeak, zutik, gizon-emakumeen gorabeheren lekuko. The Velvet Undergroundek heroinaz esan zuena, nafar batek bere sortetxeaz esan lezake. «Etxea nire heriotza da, etxea nire emaztea da eta nere bizia, zeren eta etxe dosis bat nire zainetan nire buruko gogoraino doa, eta hilik baino hobeki sentitzen naiz».



'Caines navarros' liburuako ilustrazioa.

«Infinitoa aurkitzeko, instintiboki, begiak hertsia egiten dira. Iluntasunean, irudirik gabe, denok barrenean daramagun infinitoa ez finitzeko ahalegin bat da».

Galdera: Larrutan nabilerarik begiak ixteaz gain, iluntasuna gustatzen zait. Ez da ahalkearengatik, baina beti aditu behar dut joan den mendeko maitale bat naizela. Hola al da hori?

Erantzuna: Ez, ez du ezer ikustekorik joan den menderekin edo mende honekin. Infinitoa aurkitzeko, instintiboki, begiak hertsia egiten dira. Iluntasunean, irudirik gabe, argi-itzalik gabe, hasiera-akaberarik gabe, mugarik gabe, denok barrenean daramagun infinitoa ez finitzeko ahalegin bat da.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Dantza euskal literaturan (II)

Nafarroako dantzak askozaz ere likits laban lizunagoak ziren Gipuzkoakoak baino



Larramendi lur eta zur geratzen da Mendiburu dantzaren aurkako ahaleginak egiten jarraitzen baitu. Honek buruturiko zenbait misio aipatzen du, ezkutuki modu ezin sarkastikoagoaz, zeinetan dantza debekatua izan zen, eta «hubo más niños expósitos que en 20 años con las danzas». Bestetik, Mendiburu-ren kontrazensura ere gogorra bada. Beste gauzen artean, misioetan herriak erakutsi maitasuna gogoan du: «Cuando me acuerdo de las demostraciones que hicieron conmigo los de San Sebastián, cuando concluida mi misión de 1745 salía de allí, se me cae la cara de vergüenza, pues aunque fuera Santo no podría haber visto mayores». Halaber Andoingo semeari zera oroitarazten dio, bera bakarrik ez dagoela dantzen aurkako ahaleginetan cruzada horretan, izan ere Azpilkueta, Lesaka, Azkoitia, Asteasu, Oiartzun eta beste zenbait herriak erretorek bere esfortzuak egin baititu gai honen gainean. Azkenik, dantzaren egoera Nafarroan deskribatzen du, eta argi uzten duena hauxe da, han egiten ziren dantzak desberdinu behar zirela Gipuzkoan egiten zirenetatik, askozaz ere likits laban lizunagoak, eta finean, arrisku-tsuagoak zirela klarki esanez.

Etziren soilik lagundiko anaiak zio haietan sarturik ibili ziren apez bakarrik, frantxiskotarrek ere hekien gora behar izan baitzituzten dantzak zirela eta. Ezin da ahantzi Misio Santuak euskal herrietan orotan barna burutuak izan zirela, eta hauxe aitzina eraman ahal izateko fraile txipiek misionisten egoitza berezia sortu behar izan zutela Zarautzen, horrezkero zuten lekaide-txe zaharrean. Etxe honetan, eskola izenekoa, usu aritu ziren euskal idazle nardoak, hauetariko batzuk gaurkoan guri arras egokiak suertatzen zaizkigunak, hala nola, Palacios eta Añibarro.

Oñatin 1722. urtean sortu zen Francisco Palacios Lezetak gazte-tarik jada Zarauzko misionista frantxiskotarren eskolan sartzeko erabakia hartua bazeukan. Bere bizitza nekoso eta pribazjoez beterikoa, predikazio eta konfesionarioan egin lan itzelarekin batera, santu fama ederra bereganatzen lagundu zuen, eta horregatik ez da batera harritzekoa jazotzen 1804. urtean hil zenean herriarrek haren gorpujantzien puskak eramatea errelika gisa. Halere, egungoan guri interesgarria hagi bazaigu bestelako arrazoiengatik bada, eta nonbait zehatza izatekoz, Iruñiako Longasen moldizte-

gian 1791. urtean agertu zuen 250 orrialdetako liburu bat dela eta: *Respuesta satisfactoria del colegio de misioneros de N.P. San Francisco de la N. villa de Zarauz a la consulta y dictamen impresos por la N. villa de Valmaseda con ocasión de una proposición sobre bailes*.

Lan honen arrazoia, izenburuan bertan agertzen den gisaz, hauxe izan zen: Santanderko gotzaina zen Rafael Tomás Menéndez de Luarcak igorriarik, Zarauzko komentuko bi misionistek, Felipe Landa eta Antonio Arteta hain zuzen, beren lana egitera Enkarterriko Balmaseda herri bizkaitarraren bidetara eutsi izan zioten. Misioak aurtera garatu ahala, dantzaren gaia ere azaldu zen, eta antza denez, horren bortizki erasotu egin zuten, ezen hiriaren agintariek, zalan-ta guzien behingoz argitu nahian, gaiari buruzko galdetegi sakon eta korapilatsu bat prestatu zutela, eta orduan zeuden teologo eta jakintsuei helarazi zioten erantzun fidagarriren baten lortzeko asmoz.

Galdetegi hau emaitzekin batera, argitaratua izan zen Balmasedan bertan 1789. urtean, eta agertu ziren ale gutxiatariko bat Zarauzko lekaide-txera igorria izan zen. Frantxiskotarrek, nolabait gogorkiro beltz asaldaturik, Palacios aitari erregutu zioten erantzun batei emateko, eta ihardespene hori bera gorago aipatu idazkia dugu. Nahiz eta hauxe erdarazko lan bat izan, Zarautzen bertan dauden Palacios aitaren eskuizkribuen artean badira euskaraz eginiko sermoi ugari zeinetan gaia modu batez edo bestez agertzen baita.

Palacios honen etxekidea eta aldi berean konfesoarea zen Pedro Antonio Añibarro Ugalde Billarotarrak ere zenbait idazki utzi zizkigun gaiarekin lotuta daudenak. Inportanteenak *Misionari euscalduna cristiñau doctrina ta sermoiac bizcai errietan iracasten* izenburupean izkiriaturik dauden ia 500 orrialdetako bi liburuak eskuizkribuak ditugu. Añibarro dakartzkigun dantzaren inguruko hain eztabaidagarriak suerta dakizkiguen dotrinak, bigarren liburukian ediren ditzakegu, 22tik 45ra doazen orrialdetan, eta 66. eta 67. dotrinei dagozkienak dira zehazki. Seigarren mandamentua hausten duten gaitz guzien iturria litzateke dantza Añibarrorendako, eta halako pekatu arrisku-tsu batez iharduteko bi dotrina hauek ondu zituen, ondoan ipini zenbait adibide benetan bitxiak batera.




■ Iruñeko Hiria Xake Torneo Itxiko zortzigarren 'ihardunaldiko partida, 1995ko urtarrilaren 4ean jokatu.

Victor Kortxnoi, 2.615 ELOkoa (Suitza)-Manuel Rivas, 2.520 ELOkoa (Espainia).


1.d4,e6; 2.e4,d5; 3.Zd2,Ae7; 4.e5,h5. Erregearen peoiaren indargabetzea da arazoa. Beltzek jokoa ireki nahiago izan dute, dakartzan arriskuekin. 5.c3,g5; 6.Ad3,b6; 7.b4,c5; 8.a3,a5; 9.b5. Ederki txuriak! Beltzen 'c8-ko' alfila itxita

geratu da.

9....d4; 10.d4,Zd7; 11.f4. Ikus koadroa. Eraso egitea jomuga izanik, oso ondo pentsatutako jokaldia. Jateak ez du abantailarik ematen. Peoi beltza kondanatura legoke. 11....a4; 12.g5,Ag5; 13.dZ-f3,Ah4 xa; 14.g3,Ae7; 15.Zh3,Zf8; 16.0-0,Ed7; 17.fZ-g5. Gaztelua, harrapatuta! Beltzek ez zuten jakin 'e5-eko' peoiaren presioa gaintzen. Azkar asko saldu zuten erregea. Partida bertan behera geratu zen, ondorioz.




Nafarroako toponimia txikia lau urtetan zehar bildu duen taldearen lana amaituta, emaitzak jasotzen dituzten liburuxkak ateratzen ari dira etenik gabe. Aurten beste zortzi aterako dira, eta bizpahiru urteren buruan hirurogeiko bilduma osatzea nahi du Nafarroako Gobernuak. Seiehun mila izen inguru bildu dira, eta, lehendabiziko aldiz, herrialde batek osatuxea du historiaren aztarnak bere baitan dituen izen-zerrenda. Erabilera da hurrengo urratsa.



Nafarroa osoko toki-izenak bilduko dira 60 liburutan.

Hau da Euskal Herrian egin den mota honetako lehen lana, Araban eta Bizkaian izenak bilduak baldin badituzte ere, oraindik ez direlako izen ofizialak argitaratu».



Mikel Belasko lanaren koordinatzailea.

Lau urte 600.000 izen biltzeko

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Lau urte, hamar bat lagun, berrehun milioi pezeta eta Nafarroa osoa zapaldu behar izan da bukatu berri den toponimia txikia bildu ahal izateko. 600.000 izen inguru —horietako asko toponimo beraren aldaerak—, nahiz eta denak oraindik bilduak ez izan. Oinarria dago jasoa, % 90 gutxi gora-behera, izen asko normalizatzeko funtsa. Zertarako lan hau? «Izen egokiak erabil daitez. Nahasketa handia dago testuen artean, eta jendeak toponimia ezagutzen ez duenez, horietan oinarritzen da». Mikel Belasko izan da urte hauetan talde osoaren koordinatzailea. Jose Maria Jimeno Jurioren zuzendaritzapean, artxiboko zein ahozko toponimoak bildu dira ia herri guztietan, eta 60 liburutan banatu dira. Horietariko 25 kalean daude dagoeneko, eta falta direnak bizpahiru urtetan argitaratuko dira.

Ez da dudarik arlo eztabaidatsuek erabaki eztabaidagarriak sortzen dituztela, eta toponimia bilketa honek ere izan ditu bere gora-beherak. Bi bide zeuden izen ofizialak erabakitzeko. Alde batetik, izena gaur egun erabiltzen den bezala hartuta, alderatzea duela bi mendetik hona izan duen aldaketekin, eta horren arabera erabaki. Beste aldetik, taldeak bazuen ofizialtzat ematea gaur egun erabiltzen den ize-

na. Nafarroako toponimiarako lehendabizikoa aukeratu da, nahiz eta tarteko bideak ere erabili behar izan diren. «Batuetan baziren eztabaidak erabakitzeko noraino berreskuratu eta noraino utzi behar ziren bere horretan», azaldu du Belaskok, «eta hor tokiz tokiko erabakiak hartu behar izaten ziren». Jakina, alde handia dago Urraulko eta Eratsungo izenen artean, kasurako. Lehen-

dabiziko herrietan ez da ia inor bizi, eta jendea berdin zaio zer erabakitzen den. Hor, oro har, holakoetan izen historikoa hartu

izan da aintzat. Bizirik dauden izenekin arazo gehixeago izan dira. «Artaxonan bi izen topatu genituen; *Zamacurra* eta *La*

Endarlatsa, Etxegarate...

A.B. / IRUNEA

■ Endarlatsako koartel zaharrean izaniko eztabaidaren ondorioz polizia baten heriotzarekin sortu zen azken arazoa. *Endarlaza* eta *Endarlatsa* izan ziren izen erabilienak komunikabideetan, kontuan hartu gabe hobetsitakoa Endarlatsa dela. Etxegarate da horietako bat. Idiazabalgo Udalak *Etxegarate* erabaki zuen duela gutxi, baina Euskaltzaindiak Etxegarate hobetsi du, eta orain hiru eratara —baita *Etxegarate* ere— ikus daiteke Nafarroa eta Gipuzkoa arteko gainaren izena.

Arazo horiek saihestea eta finkatutakoaren erabilera bul-

tzatzea izango da Mikel Belaskoren zeregin nagusia hemendik aurrera. Komunikabideek zeregin garrantzitsua dute horretan, eta nahasketa handia da benetan. «EGUNKARIAK bere erabakia hartu du Erriberako izenei buruz, eta 'Diario de Navarra' oso zehatza da bere arauekin: intsumisioa da gure erabakiek. 'Egin-ek' nahi duena egiten du, eta 'Diario de Noticias-en' kasua oso bitxia da: saiatzan da, baina ikusten da nabarmen euskarazko toponimia euskara bere mailarik apalenean zegoela egin dela. Horrela Lekaroz 'k'-z jartzen dute, baina azentuarekin, eta Olaguerekin benetako arazoa dute, erdaraz desberdin ahoskatu

beharko litzatekeelako».

Toponimia taldean, halabaina, garbi dute ezin dutela jendearen erabilera aldatu, besteak beste jendeak oso toponimo gutxi ezagutzen dituelako. Erabilera egokia ziurtatzeko modu eraginkorra, horrela, iturrietara jotzea da. «Mapak eta planoak ongi zehaztuta uzten baldin badira, jendeak erreferentziak hor jasotzen dituen, ongi erabiliko dira izenak. Bestalde, udal katastroetara bidaliko dira izen guztiak, eta hortik aurrera horiek erabili beharko dira». Militarrek esana diete dagoeneko izen generiko guztiak erdaraz jarri behar dituztela. Ondorioz, Uxuenekobordari, *Borda Usueneco* jarri diote.

Hosteria. Ofizialtzat jarri dugu Ardantzemakurra eta Auztegia, baina ez dakigu jendeak onartuko dituen eta, garrantzitsuena, erabiliko dituen».

Toponimoak biltzeko era bertsua izan da herri guztietan. Lehendabizi herriko alkatearekin egiten zuten harremana, eta gero herri orotan dagoen toponimozalearekin biltzen ziren, ahalik eta izen gehien jasotzeko. Nafarroako alderdi desberdinetan izen desberdinak topatzea ez da zaila, baina Belaskok azpimarratu egin ditu diferentzia hauek. «Erriberan sorozainekin hitz egitea nahikoa da, horiek ezagutzen dituztelako dermio guztiak. Handiak dira, eta ez daude asko. Erdialdean bizpahiru pertsonak ezagutzen dituzte herriko toponimo gehienak, baina mendialdean desberdina da. Herriak ezezki, auzoak eta baserriak ere badaude, eta gune bakoitzak bere toponimoak sortu ditu bere inguruan. Baserriek, kasu, izena ematen diote tokiari, eta toponimoak aberatsagoak dira. Salto handia dago, beraz, Azpiroztz edo Belatetik gora». Hor egin da, hain zuzen ere, lan honetako normalizazio handiena. Bitxikiak ez dira falta izan. «*Soluze* Baztango dermioari, adibidez, Soroluze paratu diogu, eta *Kokotxea* baserriari, Goikoetxea. Kontuan hartu behar da eskriturretan horrela daudela izenak, baina nola azaldu Kokotxea baserrikoari bere etxeak ez duela izen hori, Goikoetxea baizik?». Egindako lan guztia herrietara bidaltzen da gero, bertan alegazioak edo aldaketak egin ditzaten, eta ondoren ofizialdu egiten dira.

Hau da Euskal Herrian egin den mota honetako lehen lana, Araban eta Bizkaian izenak bilduak baldin badituzte ere, oraindik ez direlako izen ofizialak argitaratu. Iparraldeko lurraldeetan ere bilduak daude izenak, baina Frantziako Geografia Institutuaren esku daude, eta ez dago horiek erabiltzeko erabakirik. Katalunian eta Quebecen ere antzeko lan bilketa egin da, baina argitaratzen estreinakoa izan da Nafarroakoa. Bidean izen asko galdu dira, ordea. «Askos gehiago jasoko genituzkeen duela 50 urte hasi izan bagina, lehengo mundua ere galtzen ari delako eta toponimia oso lotuta dagoelako lehengo munduarekin. Lehen ardantzak desagertzen baziren galtzen ziren izenak, baina gero teileriak sortzen ziren, edo. Orain, bi aldaketak daude: herriak husten ari dira, eta haiekin batera izenak galtzen, eta, gainera, jendeak ez du izenen beharrik. Udaletxean hobe da esatea '2. lur-saila, 3. poligonoa' ezen ez 'Lizarretako soroa'».

Liburuak zonaldeka banatuta daude, eta luze gabe beste hiru aterako dira kalera. Aurten zortzi bat karrikaratuko dira eta, heldu den urtean, Zangozaldea osoak izango ditu bere izenak liburutan argitaratuta. Hortik aurrera, mendialde osoa, 60 liburuak osatu arte, Gero, erabil daitezen besterik ez da behar.

«Ilunegia da gaurko antzerkia»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Nafarroako Antzerki Eskolak, maiatz osoa iraungo duen *Commedia dell'arte*-ri buruzko ikastaroa antolatu du, eta, orain dela bi urte bezala, Antonio Fava italiarra da aipatu ikastaroaz arduratuko den zuzendari gonbidatua. Zuzendari, autore eta aktore, taula gainean eta atzean gertatzen den guztia ezagutzen du Antonio Favak, eta, are gehiago, *Commedia dell'arte* buruz ari ga-

Commedia dell'arte-ren garapena eta ekarpena?

FAVA.— Erran dudan bezala, 1535. urte inguruan sortu zen *Comedia dell'arte*. Zehazkiago erranda, 1538. urtekoak dira lehen antzerki konpainiei buruzko lehenengo datuak. Ordura arte, debekatuta zegoen antzerkia, prostituitzea bezalakoa zen. *Commedia dell'arte*-ren bigarren aroa emakumeak sartzen direnean hasten da. Hortik aurrera, XVII. mendean ailegatzten da *Com-*


teresik, garrantzitsuena aktoreen formakuntza izan dezakeen eragina da. *Commedia dell'arte*-k aktore gazteak zirikatu egiten ditu eta barruan duten onena ateratzera behartzen ditu.

EGUNKARIA.— Gaur egungo antzerkian ere, izan al du eraginik?

FAVA.— Bai, noski. Ondorengo antzerki guztiaren erreferentzia da, horregatik, eduki zezakeen garapen osoa izan du. Orain garrantzitsuena, ak-

ll'arte-n. Zein da, zehazki, euren funtzioa?

FAVA.— Maskarari dagokionez, pertsonaiak elkarrengandik bereizteko balio du lehenik eta behin. Italiaraz, hain zuzen ere, maskarak pertsonaia erran nahi du. Baina maskara, beste edozeren gainetik, erreferentzia kultural, tekniko eta poetikoa da. Maskara dena da *Commedia dell'arte*-ren barruan. Bat-batekotasuna ere ezaugarri funtsezkoa da. Antzina, zuzenean inprobisatzen zuten baina gaur egun, ezinezkoa da, aktoreek obra bat baino gehiago egiten baitute. Bat-batekotasuna, hala ere, lan egiteko tresna da. Gidoia da



JOXE LACALLE

renean. Horretaz guztiaz eta, oro har, *Comedia dell'arte*-ren garapen eta ekarpenaz mintzatu da Antonio Fava egunkari honekin.

EGUNKARIA.— Hitz gutxitan erranda, zer da *Commedia dell'arte*?

ANTONIO FAVA.— XVI. mendean, 1535. urte inguruan, sortua, antzerki profesionala dela erran dezakegu, hau da, *Commedia dell'arte*-rekin batera aktoreak profesionalizatzen dira eta lehenengo konpainiak agertzen dira. *Commedia dell'arte*-ri berari dagokionez, pertsonaia finkoen bidez jende arruntaren istorioak kontatzen dituen antzerkia da oro har.

EGUNKARIA.— Zein izan da

media dell'arte gailurrera. Jada antzerki guztia da profesionala eta autore handiek ere idatzi dituzte euren maiu lanak. Orduan dator *Commedia dell'arte*-ren gainbehera. Hala ere, XVIII. mendean eta baita XIX. mendean ere —txotxongiloen bidez— bizirik irautea lortu zuen.

EGUNKARIA.— Gaur egun zer gelditzen da horretaz?

FAVA.— Txotxongilo eta abarren bidez, 50eko hamarkada arte bizirik egon da eta ordutik aurrera, ni eta ni bezalako beste askok hartu dugu lekukoa. Gure zeregina tradizioarekin jarraitzea da, nahiz eta gurea ikuspuntu zientifikoagoa den. Gaur egun, jada, *Commedia dell'arte* antzezteak ez du in-

toreen erreferentzia bilakatzea da baita ere. Hau da, *Commedia dell'arte*-n aktorea osoa da, ez dago antzerki fisikoaren eta hitzaren antzerkiaren arteko bereizketarik. *Commedia dell'arte* egitean, gorputza osoa erabiltzen du aktoreak eta ikusleenganako komunikazioa ere guztiz zuzena da. Mugimendu bakoitza ikuskizun bat da eta aktoreak gauzak gertatzen direneko unea gozatzen du. Gaur egungo antzerkia, ordea, psikologikoa da, oso iluna. Nire ustez, nahiz eta tragediarik tristeena eta gogorre-na antzeztu, bizitzaren plazer-rra azpimarratu behar da beti.

EGUNKARIA.— Jatorriz, maskara eta bat-batekotasuna oinarrikoak dira *Commedia de-*

«Gaur egun, *Commedia dell'arte*-k aktoreen hezkuntza izan deza-keen eragina da garrantzitsuena».


obraren oinarri eta hortik aurrera, entseietan, aktore bakoitzak bere kabuz garatzen du bere pertsonaia. Edozein modutan, *Commedia dell'arte* honetan, istorioak behin eta berriro errepikatzen dira, baita pertsonaiak ere, bakoitzaren bizitza lehenetik ezagutzen dugula erran dezakegu.

EGUNKARIA.— Istorioak eta pertsonaiak errepikatzen badi- ra behin eta berriro, zein da *Commedia dell'arte*-ren xarma?

FAVA.— Aktore bakoitzak pertsonaiari ematen dion bizitza da obra bat beste batetik bereizten duena. Pertsonaiak berberak dira, maitaleak, agurak, zerbitzaria, kapitaina eta abar. Aktorea maitalerik, agur-erik edo zerbitzaririk onena izaten saiatu behar du, azken finean, *Commedia dell'arte* honetan, erdi mailak ez baitu balio, aktoreak duen guztia eman behar du.

Antonio Fava

IRAKASLEA



SOSLAIA

Munduko gauzarik poli tena

Orain dela bi urte eman zuen Antonio Favak *Commedia dell'arte*-ri buruzko lehen ikastaroa Iruñean. Aurtin esperientzia berri nahi izan du eta maiatz osoan Nafarroako Antzerki Eskolako hamabi ikasleren —emakumeak gehienak— zuzendari izango da. Ikastaroaren bukar- ran, lau astetan zehar prestatutako obra taularatuko dute eskolan bertan. Favak ez du oraindik ikuskizunari buruz ezer erran nahi, baina obra «indartsu eta bizia» izango dela ziurtatu du.

Favak berak ongi ezagutzen du aktoreen bizitza eta biziki maite duen ogibidea dela aitortu du. «Munduko gauzarik politena da aktore izatea». *Commedia dell'arte*-ren munduan, 'Pulcinella' izeneko zerbitzaria da gehien maite duen pertsonaia, bere aitak ere taularatu- tako pertsonaia, hain zuzen ere.

NOSKI JATOR

© zaldi ER02

